

Nafarkaria

• ostirala • 2002ko apirilaren 12a

Egunkaria

Gehigarri honetan


Zugarramurdi • Eskual Titiriteroen Topaketa egingen dute asteburuan, laugarrenez, Mikel eta Estefaren omenez • 2

Gabriel Gainza • «Haurren irribarrea lortu izana da nire meritua» • 7

Orientazio kirola

Orientazio kirola naturan egiten den lasterketa baten eta paseo baten arteko zerbait da. Orientazio kirolariak ahalik eta lasterren egin behar du kontrolgune batzuek markatzen duten ibilbidea.

Horretarako, mapa mutu baten eta iparrorratzaren laguntza du. Orientazio kirola herri eskandinaviarretik zabaldu zen mundu osora. Gurera, ordea, duela guti etorri da. Nafarroa Kirol Elkarteak sei kideko orientazio taldea du. Gutira, baina gogotsu ari dira kirol mota hau gizarteratzen.



Zugarramurdi •

Estefaren eta Mikelen omenez, laugarrenez

ESKUAL
TITIRITEROEN
4. TOPAKETA

Larunbata 13

Hamaika txotxongilo talde izanen dira asteburuan Eskual Titiriteroen 4. Topaketan

MIKEL ETA ESTEFA BIKOTE-ak Arte derrak ikasi ondoren Frantzian igaro zituzten hainbat urte, titereen eskola nagusia. Kilimiliklik taldea osatu, eta Euskal Herriko titereen antzoki egonkor bakarria antolatu zuten, Zugarramurdi. Bertan hain ezaguna egin

zen *Sorginak* antzezlanaren izan zuen arrakastarik handiena. Baina zoritxarrez duela bortz eta hiru urte Mikel eta Estefak bizia galdu zuten. Bikotea gogoratu nahirik, euskal titiriteroen topaketak egiten hasi ziren Zugarramurdi.

Laugarren topaketa izanen

da aurtengoa. Euskal Herrian badago beste topaketarik, baina ez dira mugatzen euskal taldeetara.

Kisulabe elkarteak da topaketa antolatzen duena. Horren truke, ez du inolako laguntza ekonomikorik. Hori dela eta, topaketan parte hartzen duten talde guztiak deus kobratu gabe biltzen dira Zugarramurdi. Taldeen borondate onari esker, Kisulabe elkarteak ez ditu errepresentazioak ordaindu behar izan. Ordainean, Kisulabe elkarteak kideek dena prest edukitzen dute aktoreei lo egiteko lekua eta jatekoa emateko. Zugarramurdiarrek ederki eskertzen dute

taldeek kobratu gabe parte hartzea.

Asteburua ekitaldiz blai izanen da Zugarramurdi, bihar goizeko hamabietan hasita. Ia une oro izanen da zer entzun eta zer ikusi. Antzezlaren maila urtetik urtera hobetzen doa, eta ikusleen erantzuna gero eta hobea da.

Antzezpenez gain, asteburu osoan eskolan, Txotxongiloen Zentroan, afixen eta panpinen erakusketa eta salmenta izanen da. Astebururako oraindik zer egin ez dakienak aski du Zugarramurdiara jotzea. Giroan murgildu eta ez da damutuko.

→ Rakel Goñi



Estefa eta Mikel titiritero defuntuen omenez egiten dituzte Zugarramurdi topaketak. • EGUNKARIA

Mikel eta Estefa zugarramurdiarrek ekarri zuten herrira txotxongiloen kultura. Kisulabe elkarteak bi kide haiek duela bortz eta hiru urte zendu ziren, baina herrian euren ondarea gelditu zen. Hori dela eta, Kisulabek bi urtean behin txotxongilo topaketa egiten du.

Kukubiltxo taldea Zugarramurdi pilotalekuan izanen da berriz.

• JOXE LACALLE



muga enea

MIKEL REPARAZ



Asper-asper eginda, plataforma digitalaren berrogeita hamar kanalak banan-banan, behin eta berriz, eten gabe pasa bitartean egin nuen gogoeta lehenbizikoz. Informazioa jasotzeko beharra ez ote da patologia hutsa, kasu gehienetan? Berrogeita hamargarren kanaletik lehenbizikora, eta tira berriz ere, ilaran, errenkadan, espiralki, on line. Film baten bila-edo. Sofa gainean etzanda. Katerik kate, informatibotan esan lezaketen ez galtzeko, azken orduko operazio militarra edo pedofilia kasuaren berri zehatz guztiak lehen bait lehen jasotzeko. Telebista ezin itzalirik, ordenadorea piztu eta interneten

Patologia espiralak

sartzen diren horien moduan. Google edo Yahoo edo bestelako bilatzaila orojakileetan hitz bat idatzi eta horren inguruko informazioaren bila hasi. Informazio hutsa, mamirik gabekoa. Bill Gates jauntxo globalak dio internetek informazioa aproposa ematen duela, momentu aproposan eta helburu aproposaz. Horren aurrean, Alain Touraine soziologia irakasleak telebistaren gainean esandakoa erantzunen nuke nik; alegiaz ere, internet eta telebistaren gizarteak sortu duen mundua eskizofrenikoa dela, eta mundu horretan ez dagoela tarterik norbanakoaren eta maila globalaren artean. Horregatik, iritzi publiko eskizo-

freniko horri produktu espiralak saltzen dizkiogu hedabideok. Espiralak, konzentrikoak, hipnotikoak, mamirik gabekoak. Eta informazioa labela inprimatzen diogu, gero, azalean. Baina horrek ez ditu ikusle-irakurle-entzuleak errugabetzen. Izan ere, Nokia telefono mugikorren jokuak adikzioa sortzen duten moduan, iritzi publikoak ere joku, ikuskizun eta sasi-informazio espirala behar baitu. Plataforma digitalaren berrogeita hamar kanalak banan-banan, ilaran, behin eta berriz arakatu bitartean egin nuen ondorioz gabeko gogoeta, sofa gainean luze-luze lo hartu baino lehentxeago. Asper-asper eginda.

Atarrabia ●

Hizkuntzen arabera bi entitate juridikotan banandu nahi du Nafarroako Gobernuak

LORENZO GOIKOAKO ZUZENDARIAREN eta irakasle guti batzuen eskaerari kasu eginez, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak ikastetxea bitan banatzeko dekretuaren zirriborra prest du. Atarrabiako Udalak erabakia-
ren kontrako mozioa onartu zuen, Batasunaren, EAren eta IUren aldeko botoekin, UPNren kontrakoekin eta PSNren abstentzioarekin; Udala, modu horretan, ikastetxean eredu elebiduna mantentzearen alde azaldu zen. Ikastetxeko Eskola Kontseilua ere bereizketaren kontra azaldu da.

Lorenzo Goikoan 540 ikasle-etatik 316k euskarazko D eredu-
an estudiatzen dute, eta gainera, gaitzakoek A edo G eredu-
etan (hau da, gaztelaniaz, euskara irakasgaiarekin, edo gaztelania hutsez). Antza denez, antolaketaren inguruko hainbat ikamika izan dira ikastetxean zuzendaritzaren, irakasleen eta gurasoen artean. Hori dela eta, gaztelaniazko zenbait irakasle zentroa bereizteko eskatu zuten iaz. Eskola Kontseiluak eskaera atzera bota zuen. Aurretik berriz eskatu dute, eta Kontseiluak berriz ere ezetz erran badu ere; baina badirudi Gobernuak kasu egin diela.

Euskarazko eta gaztelaniazko ikasleak banantzearen nahi horretaz landara, honen guztia-
ren gibelean badira pare bat kontu afera iluntzen dutenak. Batetik, aipatu beharrekoa da

apirila eta ekaina bitartean ikastetxeko zuzendaritzarako hauteskundeak egitekoak direla. Kontuan izanik gehienek egun D eredu-
an ikasten dutela ikastetxean, oraingo zuzendariak zailago izanen luke kargua berritzea. Bestetik, badirudi Larrain-
tzarko eskolatik A eredu-
ko 30 bat haur eramanen dituztela Lorenzo Goikoara. Gaia aztertze-
ko egi-
niko osoko bilkuran, Batasuneko zinego-
tzi Txema Juradok salatu zuen Gobernuak erraztasunak eman dituela haur horiek Larrain-
tzarko eskolatik A eredu-
ko, baina «logi-
koena Basaburuara eramatea zen», eta, aldiz, «zailtasunak jartzen ditu, adibidez, Corellan eus-
kara eskaintzeko». Dirudenez, A eredu-
ko haur horien gurasoek hainbat ika-
mika izan zituzten D eredu-
ko gurasoekin.

Lorenzo Goikoako guraso-
ek, aldiz, kezkatu ikusten dute haur berri horien etorrera, uste baitute ikastetxea beteta dagoela eta ikasle gehiago izateak

Nafarroako Gobernuak bitan banandu nahi du Lorenzo Goikoa ikastetxea.
● JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS



Lorenzo Goikoa ikastetxea hizkuntzen arabera bi entitate juridikotan bereizteko dekretuaren zirriborroa egin du jada Nafarroako Gobernuak, gehienak aurka dauden arren.

funtzionamenduan eraginen lukeela.

Iragan astean, IUk mozioa aurkeztu zuen Nafarroako Parla-
mentuan, Lorenzo Goikoa bereiztearen kontra eta ikaste-
txe elebidunaren eredu juridi-

koa mantentzearen alde. Astelehen-
ean, berriz, EAK galdera egin zion Nafarroako Gobernuari, bereizketaren kontra eta ikaste-
txe elebidunaren eredu juridi-

→ Asier Azpilikueta

Iruñea ● Zabalik da pilota txapelketan izena emateko epea

IRUÑEKO ALDE ZAHARRA AUZO elkarteak Mañuetako Binakako Pilota Txapelketa antolatu du, zortzigarrenez, kirola bultzatu eta Mañuetako pilotalekua biziberritzeko asmoz. Hilaren 24an hasiko da lehiaketako lehen faseko ligatxoa eta maiatzaren 25ean izanen da finala. Txapelketa auzoko txiki-
entzat da, eta, iaz bezala, pilotari eta zale askok parte hartuko dutela espero dute antolatzaileek. Zabalik da izena emateko epea, hilaren 18a bitarte, elkar-
teko egoitzan (Aldapa 5, 948-212526).

Lau kategoriatan banatuko dituzte parte-hartzaileak: 9 eta 10 urteko haurrak ariko dira lehenengoan, 11 eta 12koak bigarrenean, 13 eta 14koak hirugarrenean eta 15 eta 16koak laugarrenean. Hainbat kategoriatan neskek ere parte hartuko dute, aurreko urteetan bezala.

Lehiaketa sistemari dagokionez, lehen fasean ligatxoa eginen dute kategoriatan bakoitzeko pilotariak, hilaren 24tik aurrera. Finalak, berriz, maiatzaren 25ean egingen dituzte. Egundik horretan Alde Zaharreko Eguna ospatuko dute auzokideek.

Iruñea ● Udan Euskaraz Blai kanpainarako ideia bila

SAKANAKO MANKOMUNITATE-
ko euskara zerbitzuak ideien lehiaketa antolatu du urtero egiten duen Udan Euskaraz Blai kanpainarako. Eskualdeko igerilekuetan euskararen erabilera bultzatzea da kanpainaren helburua, eta mezu hori zabaltzeko ideia berrien bila dabilta Sakanako Mankomunitateko arduradunak, ahalik eta jende gehienak parte har dezan. Erakunde horrek zabalduko datuen arabera, Sakanako herritarren %40k euskaraz badakite, 6.500 bat lagunek, eta beste

3.000 lagun hizkuntza ikasten ari dira.

Nahi duen edozeinek parte har dezake ideien lehiaketan, eta nahi adina ideia aurkez ditzake. Martxan jar daitezkeen ideiak eskatu ditu Mankomunitateak. Proposamenak idatziz aurkeztu behar dira, maiatzaren 10a baino lehen. Mankomunitateko euskara zerbitzura bidal daitezke (Uriz 38, 31.830, Lakuntza), hara eraman edo posta elektronikoen bidez helarazi (euskara.sakana@anim-sa.es edo kirola.sakana@anim-sa.es).



ur dai
aren
mintzoa

Xabier Larraburu

Sekuoia

Takoneran Zaldi Eroarekin egin dut topo. Bakarrik aurkitu dut (ohi duen moduan), harrizko bankuan eserita, sarrerako sekua luze-
ari begira. Bostekoa eman eta segituan esan dit Trondheinen komikigilearen lan bat irakurri ondotik Takonerako zuhaitzak Trondheinen era-
ra ikusten dituela, marrazkilarien estiloan. Sekuoia hori, esate baterako, marrazkila-
riak sekua margotzeko erara ikusten duela orain: lodixeagoa, potoloagoa... ba horixe: Trondheinen era!

Berarekin eseri eta pipa ahotik ateraz esan diot zuhaitzaren izen zientifikoa Sequoiadendron giganteum dela, eta Kalifornian, hemen ez bezala, adarrak goiko aldean bakarrik ateratzen zaizkiola, puntan, eta han 125 metrora hel daitezkeela, eta 3.000-4.000 urte bizi izandako sekua badirela, eta horrek esan nahi duela Erroma bera baino zaharragoak direla, eta izugarria dela pentsatzea baso erdian jaio zirenean, txiki-txikitxoak ziren hartan, Capitolioa oraindik eraikitzeke zegoela.

Esan diot milioi bat gau ikusi ditzutela, eta milioi bat egunsenti, eta denbora neurtzeko zenbaki ezerosoak sortzen direla, eta, akaso, beste erreferentzia bat behar-
ko dutela, kometa bat agian, Hyakutake kometa akaso, zeren hau 80 urtetik behin hurbiltzen da gura, eta horrela «50 kometa ditut» esan dezake, eta ez «4.000 urte», edo «nerabea naiz, 12 kometa ditut (960 urte)», eta eramangarriago eta erosoago egingo zaiela horrela. Esan diot sekua izena Secoyah Cherokee gizasemetik dator-
kela eta hau izan zela Cherokee alfabeto-
a asmatu zuena, Cherokee idazteko noski, eta egunkari bat ere sortu zutela Cherokeeaz, eta seguru nagoela Cherokee batuarekin eta estilo liburuarekin kristoren buruhausteak izango zituztela, guk bezala.

Bien bitartean, Zaldi Eroa mutu. Ez du txintik esan. Ez du esan «ez nekien» edo «hara!». Ez du «mmmmmm» adi-adi entzuten duenaren soinu egokia egin. Bera sekua begira zegoen. Gero, ni isildu naizenean, «Kandyskiren lanak ikusi ondotik Kandyskiren koloreak eta konposizioak hemendik eta handik agertzen zaizkit» esan du. Artistak!

Ez dakite entzuten. Hori da: entzuten ez dakitela! ●

Nafarroako iparrorrtzak

Orientazio kirola pixkanaka pixkanaka sartzen ari da gurean Nafarroa Kirol Elkarteen eskutik

Bihar, orientazio kiroleko Nafarroako aurtengo egitaraua hasiko da. Hemen erabat ezezaguna den kirol horri bultzada emateko, Nafarroa Kirol Elkartekoek zortzi proba eta hiru ikastaro antolatu dute denboraldi honetarako. Sei orientazio kirolari besterik ez dira oraindik, baina gogotsu ari dira. Badakite egin behar duten lehenbiziko gauza dela kirol mota hau nolakoa den esplikatzeari; eta horretan ari dira.



Mikel Iraizoz
ORIENTAZIO TALDEKO ZUZENDARI
TEKNIKOA

«Nafarroan orientazioa egiteko kiroldegi handia dugu: natura. Baina, orientazio mapak egin behar dira eta erakundeen laguntza behar dugu»

Buruari eragiteko kirola

Orientazio kirolak bi alderdi ditu, fisikoa eta teknikoa. Iraizozen aburuz, lehenbizikoak ez du garrantzi handirik. «Fisikoari dagokionez, orientazioa ez da oso gogorra. Zuk ematen diozu nahi duzun gogortasuna, ibilbideak paseoan edota lasterketa egiten ahal baitituzu». Aitzitik, teknikak garrantzi handia du orientazioan. «Buruari asko eragin behar zaio. Memoria, behaketa ahalmena eta erabakiak hartzeko gaitasuna asko lantzen dira. Eta, alde horretatik, ez da horren garrantzitsua azkar joatea. Izan ere, oso azkar joaten bazara, errazago despistatzen ahal zara».

Orientazio kiroleko ibilbide bat prestatzen denean, hau ez doa, noski, ohiko bideetatik. Kirolariak egin behar du bidea. Eta puntu batetik bestera aldapa gogorra edo sasi eta zuhaitz asko baldin badago, hobereana da itzulgingurua egitea, beti ere segi beharreko norabidea zein den gogoan izanik. Horretan datza kirol edo joko honen gakoa.

Susana Diego -irudietan helmugara aliegatzen eta podiumean- bigarren izan zen Espainiako Txapelketan.

JORGE URKIO



Ekitaldien ugaritzea

Nafarroa Elkartekoek iaz antolatu zituzten proba eta ikastaro kopurua bikoiztu egin dute aurtengo denboraldirako. Hasten ari dira, baina gogotsu ikusten zaie. Apirilaren hasieran Espainiako Txapelketa jokatu zuten Granadan, eta hamaikagarren postuan sailkatu ziren Mikel Iraizoz, Eneko Iraizoz, Jorge Urkijo eta Susana Diego. Azken horrek, gainera, bigarren postua lortu zuen bere kategorian.

Antolatu dituzten ekitaldien artean bi dira nabarmentzekoak: Oltzakoa eta Bardeakoa. Oltzan iaz orientazio proba bat egin zuten. Aurten errepikatuko dute -apirilaren 28an-, eta, gainera, eskola-mapa bat osatu dute, jendea kirol honetan sartzeko modu gisa. Oltzako proba egin baino lehen ongi legoke Elkartek apirilaren bukaeran eskainiko duen orientazio ikastaroa egitea.

Bardean, berriz, Nafarroan ohikoak diren baino proba luzeagoa egingen dute maiatzaren 5ean. Hiru ibilbide izanen ditu, familian egitekoa, bikotea egitekoa, eta bakarka egitekoa (20 km.). Gainera, Altsasun eta Lekunberrin proba bana egingen dute. «Kirol honetako problema da mapak egin behar direla», azaldu du Iraizozek. «Kiroldegia badugu, natura, baina nolabait markatu behar dugu. Eta mapa horiek oso garestiak dira. Horregatik, erakundeen laguntza behar da. Pixkanaka pixkanaka Nafarroako toki askotako mapak egin nahi ditugu, ibilbide ezberdinak egin ahal izateko; ez baita ona probak egiteko betiko mapa erabiltzea».



Iraizoz baliza batera iristean, Granadan egin ziren Espainiako Txapelketan. ● JORGE URKIO


Kirol Jokoetan sartu, harrobia lantzeko

Nafarroako orientazio kirolariak Euskal Ligan eta Ipar Ligan aritzen dira. Ipar Ligan iazko denboraldian hiru lehenengo postu lortu zituzten. Eta lortu zuten ere bigarren mailara igotzea. Aurten zaila egingen zaie maila hori eustea, puntuazio ona lortzeko ia lasterketa guzietara joan behar baita. Eta babeslerik ez dutenez, ez zaie erraza egingen. Badute, ordea, bestelako erronkarik.

Espainian orientazio federazio bat sortu berri da, mendi federaziotik bereizia. Nafarroan ez dute hainbeste nahi. Legez ere zein dute egin, federazioa sortzeko gutierrez bi talde behar baitira. Baina gusatuko litzaiekie orientazioa Kirol Institutuak antolatzen dituen Kirol Jokoetan sartzeari. «Izan ere, guretako inportanteena da harrobia sartzeari», adierazi du Iraizozek. «Titikiekin lan egin behar da. eta, horregatik, kirol honi bultzada emateko hagitz garrantzitsua litzateke Kirol Jokoetan sartzeari, eta denboraldian bospasei proba egitea jendea animatzeko. Ez da erraza izan, baina ea heldu den urterako lortzen dugun». Horretarako, jakina, kirol hau praktikatu duen jende gehiago behar dute.

Nafarroa Kirol Elkartek antolaturiko proba edo ikastaroetan parte hartu nahi izanez gero deitu 948-224324 telefonora edo idatzi irai-zoz@navegalia.com helbide elektronikora.

→ Asier Azpilikueta



Roberto Pascual

ORIENTATZAILEA

«Nazioarteko lasterketetara ikastera joaten gara, ez lehiatzera»

NAFARROA KIROL ELKARTEKO ORIENTAZIO TALDEAK DUEN orientatzailearik hobereana Roberto Pascual Paski da, 33 urteko iruindarra. Elite mailan aritzen da bera.

Noiz hasi zinen orientazio kirolean?

Duela hamar urte pasatxo hasi nintzen, Madrilera Kartografia ikastera joan nintzelarik. Kirolaren berri han izan nuen eta berehala erakarri ninduen. Izan ere, beti gustatu izan zaizkit planoak, mapak eta natura. Baina ikasketak bukatu, eta Iruñean orientazio kirola egiten segitzeko aukera handirik ez nuela ikusi nuen. Horregatik, hasieran Bilboko talde batekin aritu nintzen; eta gero Gasteizko beste batekin. Harik eta, 2000 urte bukaeran, Nafarroa Kirol Elkarteko orientazio taldea sortu zen arte.

Euskadiko txapeladuna izan zinen urte hartan.

Bai, baina orain, Nafarroako talde batean nagoenez, ez dagokit titulu hori; politika kontuak, badakizu. Eta Espainiako selekzioan ere izan naiz noiz edo noiz.

Eta nazioarteko lasterketetan zer moduz?



JAGOA MANTEROLA / ARGAKI PRESS

Tira, horietara gu ikastera joaten gara, ez lehiatzera; orientazio kirolean munduko azkenak baikara ia.

Zer behar da kirol honi bultzada emateko?

Oinarria landu behar da, batetik; hots, harrobia. Kirol hau egingo duen jendea behar da. Eta, horretarako, haurrekin egin behar da lan. Eta, bestetik, gure adineko jendea ere behar dugu hau guztia antolatzen laguntzeko.

Aurten Nafarroan egingen diren saio kopurua bikoiztu duzue.

Saioak ugartuz, kirol hau egiten dela entzunen da behin eta berriz, eta horrekin lortuko dugu bultzadaxoa ematea. Gutxi batzuk gaude, baina gehiago etorriko dira.

Zuk 33 urte dituzu. Zein adina arte praktikatzan ahal da kirol hau?

Duela guti Murtzian (Espainia) egin zituzten beterranoen munduko txapelketa ikusten izan nintzen, eta 90 urteko orientatzaileak ikusi nituen. Eta lehiaketan segitzen dute, beren adinekoekin lehiatzen.



Susana Diego, Jorge Urkijo, Eneko Iraizoz eta Mikel Iraizoz Nafarroa Kirol Elkarteko orientazio taldeko kideak. ● JORGE URKIO

Nafarroako 2002ko Orientazio Egitaraua

1. Proba: apirilaren 13an, Ziadadelako parkean, ikastetxeetako haurrentzat.

Ikastaroa: jende guztiari irekia; apirilaren 24-27 egunetan, Nafarroa Kirol Elkarteko egoitzan.

2. Proba: apirilaren 28an, Oltzako Zendea, haur zein helduentzat. Euskal Ligako proba da.

3. Proba: orientazio *raida* Bardean, ekainaren 5ean; jende guztiari irekia.

4. Proba: maiatzaren 18an, Ziadadelako parkean, ikastetxeetako haurrentzat.

Ikastaroa: heziketa fisikoko irakasleentzat; ekainean.

5. Proba: ekainaren 16an, Altsasun; jende guztiari irekia. Ipar Ligako proba da.

6. Proba: irailaren 29an, Lekunberrin; jende guztiari irekia. Ipar Ligako proba da.

7. Proba: urriaren 10ean, Ziadadelako parkean; ikastetxeetako haurrentzat.

Ikastaroa: jende guztiari irekia; azaroaren 19-22 egunetan, Nafarroa Kirol Elkarteko egoitzan egitekoa.

8. Proba: azaroaren 23an, Ezkaba mendian; jende guztiari irekia. Ipar Ligako proba da.

Oltzako eskola-mapa aitzindaria

AURTENGO EKITALDIEN BARNEAN, APIRILAREN 28AN orientazio proba egingen dute Oltzako zendea. Bertako Udalaren laguntzaz Nafarroa Kirol Elkartek egin duen eskola-maparen inaugurazioa egingen dute orduan. Azalpenak dituen mapa bat eta hiru zailtasun mailako ibilbide bat egin dute elkartekoek; eta ibilbideko egurrezko balizak modu egonkorrean paratuko dituzte.

Elkartekoek azaldu dutenez, eskola-mapa hau aitzindaria da. «Oltzakoa jende guztiari irekita egonen den ibilbide iraunkorra izanen delako;

beste leku batzuetan orientazio kirolarientzako entrenamendu zelaia dituzte».

Eskola-mapa edonori irekia da. Ikastetxeetako haurrek egin dezakete, familiek eta orientatzaile hasiberriek. Ikastetxeek, nahi izanez gero, elkarteko laguntza teknikoa izanen dute. Mapa eskuratzeko, Oltzako udaletxera deitu behar da, 948-321353 telefonora. Mapa eskuratu eta gero, nahi adina alditan egin daiteke ibilbidea. Hori bai, elkartekoek abisatu dutenez, urtero aldatuko dituzte balizen kokalekua eta kontraseinuak.

Gurutzebidean

Neure bidea. Azken boladan nire begi ninietako seme-alabak gaizki portatzen direlarik, esaten diet Antoniuttira eramanen ditudala, eta patinomodroaren erdiko belardian paratu duten hamaika sokaz osaturiko piramide erraldoian jolastera behartuko ditudala. Aztarnarik utzi gabe, ezbeharrak balitz bezala, seme-alabek libratzeko toki —jolastoki— ezin aproposagoa da —erromatarrak bezala, erregionalistak burutik jota daude: munduko oztopo guztiak jartzen dizkiote biharamuneko pilulari, eta gero abortu atzera-eraginezkoa egiteko musu trukeko aukera eskaintzen dute, parke publiko batean!—.

Pazko asteako 'via crucis'-a. Jesukristok ez bezala, gurasook berpizkunde igandearen ondoko Pazko asteen pairatzen dugu sufrikarioz josiriko *via crucis*-a —espero dezagun **Fernando Sebastian** artzapezpikuak Inkisizio Saindua ez oldarraraztea nire aurka literatur lizentzia honen ondorioz. Txikiagoengatik handiagoak egin ditu. Galde diezaiotela bestela **Jesus Lezauni**—: guk lan eta seme-alabek, **Tapia eta Leturiaren** moduan —a ze diskoa Tapiaren azkena, Eusko Gudiak ereserkiaren berreskuraturiko estrofeak ia berpiztu dute aspaldian itzalitako nire abertzaletasun gartsua—, jai, opor. Esaterako, Pazko asteen Larraitzek eta Jonek, Jonek eta Larraitzek, gupidagabe, ahots karran-

kari bezain tematiz, egunero eten zuten nire Monte Carloko bazkalondo-ko mus partida, litxarrerietarako, zinemarako, edozertarako diru eske.

Bestelako bideak. Erasoaldi orotan nire oinordekoei Antoniuttira eramanen nituela egin nien mehatxu, batere eraginkortasunik gabe. Gerardo mus bikotekidea pazientzia handiko gizona da, ez, ordea, amaigabekoa. Buruhandien lehen erasoaldian —horrela deitzen ditu haurrak lagun ikurrina baino baskoagoak— irribarre egin zuen, bigarrenean muturra okertu zuen, eta hirugarrenean mehatxu

gupidagabea egin zien: «Ixo, edo **Baltasar Garzon** epaile magoari kale borrokan zabiltzatela esanen diot». Jonek 12 urte ditu, eta Larraitzek 9, eta ez dut uste ez bata ez besteak ere bakearen nobel saria jasotzeko hautagai lege-gizonaren —a ze maila aurten hautagaien artean, Garzon, **George W. Bush**... **Ariel Sharon** besterik ez zaie falta. **Simon Peresi** jada eman zioten... —inguruan ezer gutxi dakitenik, baina isildu, eta zintzo demonio alde egin zuten. Gauzak horrela, aurrerantzean, Antoniutti bazterrean utzita, Garzonen mehatxua erabiliko dut.

Okerreko bidea. Haurrek alde egin zutelarik, eta espero zitekeenez, Gerardok Garzonez hitz egiten segitu zuen. Esan zuen ziur dela bera izanen dela Batasuna legez kanpo uzteko lege ekimena martxan jarriko duena. Eta gaineratu zuen horrek inork espero ez dituen ondorioak izanen dituela. Aurkari genituen bi taxistok eta hirurok galdetu ez bagenuen ere, ondoriook azaldu zituen. Azaldu zituen guztiak agerikoak ziren, bat izan ezik: Garzonek *Gran Hermano* legez kanpo utziko du, etxeko maizterretako bat Ezker Abertzaleko kide izan delako, nonbait. Adi *Interview*-rekin.

● GALI TIBBON / EPA



Ariel Sharon, Israelgo lehen ministroa.

● JESUS DIGES / EFE



Fernando Sebastian, Iruñeko artzapezpikua.



panpilonia zirkus

«Nola zaude, Miel?»

Bainugelan armiarma hanka-luze fina agertzen denean bezala, San Migelen etorrerarekin gauza bera entzuten da etxeetan: «*langar giro eta euria*» Gero, berdin dio betetzen den ala ez; baina, On Inozentziok erraten zuen gisan, «*Iruñean, apirilean, eguraldi eurtsua izaten da eta aise da asmatzea*». Aralarko aingeruak, beraz, euria maiz eragiten du eta, horretaz gain, urtero, hutsik egin gabe, hirian gertatzen den ezkil-jotze handiena ere bai. Izan ere, Orkoingo dermioa utzita, Takonera aldera iritsi bezain laster —pazko astearen ondoko astelehenean beti—, Alde Zaharreko bortz eliza-parrokietan ezkilak indarrez harrotzen hasten dira, katedralekoak barne, eta horiekin batera, komentu eta bertze eliza batzuetakoak ere bai. Eta hori ber-

tze behin baizik ez da gertatzen, hots, San Fermin egunaren bezperan, eguerdiko hamabietan.

Hirira iritsita, Mecako aingeruak «*musutakoa*» eman, segizioa eratu, aingerua lapurtu zuten baxenabartar urkatuen arimaren alde oititz egin, hiriko ttuntunero klasikoek soinu jo eta San Nikolas elizara joaten da, urte bakoitietan San Antonen barrena eta bikoitietan, aldiz, San Gregorion barrena, bi karrika horietako bizilagunen artean ika-mikarik ez izateko. San Nikolas mukuru betea egoten da aingeruari musu emateko eta han hasten dira San Migelen koplak entzuten, hala euskaraz nola erdaraz, aldizka. Jende euskalduna gutxiago izaki, modu estrategikoan paratzen dira, euskarazko ko-



San Migelen etorreraren irudi zahar bat.

plak erdarazkoak hainbateko indarra izan dezan.

Izan ere, On Inozentziok hitzez hitz zioen bezala, «*San Migelek beti izan du halako euskal keru bat...*», nahiz eta bakarren batek, duela zenbait urte, bertzelako gauza bat erregutu aingeruari, irudia Diputaziotik ateratzerakoan, oso hizkera aizpundarrean gainera: «*San*

Enrike Diez de Ultzurrun

Migel, sálvanos de los euzkadianos». Hizkera berezian ere eginak daude, oso jende gutxi gogoan omen dauzkan koplak, gerra aitzinekoak. Curia karrikako Robustiana Unzu Aranburu andreak baten bat badaki: «*San Lorenzo aurrean, parar se suele hacer y San Fermin le dice: Nola zaude, Miel?*».

Urtetik urtera, gero eta lan handiagoa izaten du, gero eta toki gehiago bisitatzen baititu: eliza, komentu, ospitale, erakunde, eskola, ikastola, zahar-etxe, kirol instalazio eta bertze, alde batera utzi gabe ohatzean dautzan San Migelen Anaitasuneko kide erien etxeak eta hiriko lurren bedeinkazio orokorra. Hegalak bete lan beraz, igandean Milutzeko zubia pasa eta berriz ere Iruñerriko galsoroetan barnaratzen den artean.

Gabriel Gainza

HEZITZAILE ETA ARGAZKILARIA

«Haurren irribarrea lortu izana da nire meritua»

solaia

Haurrekin lan egitea beti izan du gustuko Gabriel Gainzak. 26 urte ditu gazte iruindarrak, eta bizitza erdia haur taldeekin lanean eman du, katekesi ematen, edo parrokiako eskaut taldeekin.

Valentziako Nazaret auzora 1993an ailegatu zen aurreneko, eta azken sei urteak han eman ditu, hango ijitoekin bizitzen. Ijitoen eskolatan eta ludoteketan egin du lan boluntario gisa, haurrei higiene kontuen gaineko argibideak erakusten.

Valentziatik bueltan, Nuevo Futuro elkartearekin ari da orain lanean Gabriel Gainza, Barañaingo babeseko pisu batean. Sei hilabeterako kontratua sinatu du, eta luzatzeko esperantza badu, baina badaki noizbait Valentziako Nazaretera itzuliko dela.



● JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

Gabriel Gainza hezitzaile iruindar gazteak *Una sonrisa muy especial (Irribarre oso berezia)* izenburuko erakusketa zabaldu du, hilaren bukaera bitarte, Descalzos 72ko aretoan. Valentziako Nazaret auzoko neska-mutil ijitoekin sei urte eman ditu Gainzak, eta haiek dira bere argazkietako protagonista.

FAMA TXARRA DUEN AUZO DA Nazaret Valentzian. Ijitoak dira nagusi, eta han bizi diren haurren egoera ez da, gehiengotik, egokiena. Hango bizimoduak buru-belarri murgildu zen Gabriel Gainza, eta, orain, iruindarrei erakutsi nahi izan die han ezagututako haurren irribarrea nolakoa den.

■ Zein da erakusketa honen helburua?

Nire helburu bakarra izan da nire esperientziaren berri ematea jendeari. Horrekin batera, irribarre egiteak duen garrantzia nabarmendu nahi nuen argazkion bidez. Horregatik aukeratu ditut irudiotan ageri diren haurrak. Ez dirudi haurrok irribarre egiten erakusteko pertsonarik egokienak direnik, eta ez dirudiela erran dudala azpimarratu nahi dut, nik ederki ikasi baitut irribarrearen maisu direla. Pozik bizi direlako, nahiz eta gure usteen arabera, behar dituzten gauzen erdiak ez eduki. Horregatik, nolabaiteko zartada da erakusketa. Ni Valentziara joan nintzen esperientzia bat bizitzera, eta pentsatuz haurroi zer edo zer emateko banuela. Hori lortu dudala uste dut, baina askoz gehiago da haiek niri eman didatena. Erakusketaren bidez, bizi izan dudana ezagutzera eman nahi izan dut.

■ Erakusketa egiteko asmoa han egon ondoren sortu da, edo bazenuen aurretik ideia?

Nolabaiteko ideia banuen. Argazkigintzarako zaletasuna beti izan dut, eta Valentzian hango aldizkari batekin kolaboratzeko aukera izan nuen. Pixkanaka-pixkanaka, argazkigintzaren esparruan sartzen hasi nintzen, eta Valentzian bertan haurrei egindako argazkiekin erakusketak egin nuen. Horrela sortu zen gero Iruñeko erakusketa egiteko aukera.

■ Auzokide izan zenituen argazkian ageri diren haurrak, ezta?

Bai. Ederki ezagutzen ditut denak; ez dira, inondik ere, kalean harrapatu eta berriz ikusi ez dituzten haurrak. Bakoitzaren ize-na eta bi abizenak ezagutzen ditudala erran nuke. Sei urte eman ditut haiekin, eta ordu asko pasatu ditut egunero haiekin lanean. Argazkietan denak irribarretsua ageri dira, baina beste era bateko egoeratan ere ezagutu ditut. Nik, ordea, irribarretsua atera nahi izan dut. Finean,

«Nik ederki ikasi dut Nazaret auzoko haurrak irribarrearen maisu direla; pozik bizi direlako, nahiz eta gure usteen arabera, behar dituzten gauzen erdiak ez eduki»

hori da nire meritua bakarra, argazkia egin aurretik haien ezpainetan irribarre bat agertzea lortu izana. Gainerakoa haiek egin dute.

■ Nola ailegatu zinen Valentziako Nazaret auzora?

Iruñean gazte talde batean nengoen, eta haurrak oso gustuko nituela jakinda, auzo horretan egin behar zen proiektu batean parte hartzeko proposatu zidaten. 1993an izan zen hori, eta hamabost egun eman nituen auzoan. Batez ere haur ijitoekin egin nuen lan, haien astialdian era askotako proposamenak aurkeztzen eta haurrak laguntzen eskolako lanetan. Joan aurretik kontuz ibiltzeko erran zi-

guten, oso auzo gatazkatsua zelako, baina ailegatu bezain pronto, liluratuta gelditu nintzen. Lehen egunetik jakin nuen hamabost egun baino gehiagoko harremana izanen nuela auzoarekin.

■ Sei urte eman dituzu han; zaila izan al zen zuretzat hango bizimoduan barnertzea?

Lana bilatu behar nuen, eta Iruñean bilatu ordez, Valentziara joatea erabaki nuen. Nazaret auzoan etxea hartu eta han hasi nintzen lanean. Hasiera, egia erran, nahiko zaila izan zen. Auzoak oso fama txarra du, eta egia da droga kontu asko dagoela. Horregatik, kanpotik hara

ailegatzea ez da erraza; ijitoek, batez ere, ez zaituzte onartzen. Haurren gurasoekin egin nuen harremana lehendabizi, baina, oro har, ez ninduten ongi ikusten. Horregatik, pixkanaka haien konfiantza lortzeko lan egin behar izan nuen, eta, azkenean, lortu nuen.

■ Iruñera itzuli ondoren, lortutako harreman horri eutsi diozu?

Bai. Abenduan itzuli nintzen, eta geroztik lauzpabost aldiz joan naiz, joan den asteburuan azkeneko. Zaila izan zen haurrei agur erratea, baina deitzen nauten telefonoz. Askok jateko diru gutxi dute, baina ni deitzeko aurrezten dute, eta hori oso polita da. Itzuli nintzen pentsatu nuelako hango etapa amaitu zela. Hemen lan berri bat egiteko aukera sortu zitzaidan eta etorri nintzen, baina badakit noizbait itzuliko naizela.

→ Edurne Elizondo

NAFARROA
KAP: taina
ETA PETILLA
KOMANDANTEORDEA

Inpernuko
Atcan...

Aupa
Dedio!



Nafar Kronika

Martxelo Sotes

Nafarroako Osaba Handia

Ez. Ez da Arturo Kanpion. Ez eta Frantzisko Xabierkoa edo Fermin Deuna ere. Gainera, Roldan Jimenok erakutsi du, behin betikoz, azken hau kondaira pertsonaia besterik ez zela izan. Egungo Nafarroako osaba handia bene-benetakoa da. Bere izena, Jazinto Garbaio. Mister Navarra berria Telebortzeko *Gran Hermano*-n sartu dute, eta berehala gailendu zaie gainerako lehiakideei. Normal.

Jakina da euskal egunkarietan telebista kontuez aritzea ez dagoela ongiegi ikusia. Ez da lan intelektuala, etsaiarekin bat egitea da nonbait. Baina ezin ukatu: Anaia Handiaren aurreneko bi denboraldiak sekulako arrakasta izan dute Hegoaldean. Ikusleria neurgailuak kontsultatu besterik ez dago. Telebortzeko ikuslerik fidelenak Euskal Herrian daude.

Hau gutxi balitz bezala, Nafarroa ofizialeko esentziak batzen dituen supergizona sartu dute etxe horretan, lurralde honetako ikusleak berarekin identifika daitezten. Halaxe egiten dute beti; lehiaketaren edizio guztietan euskaldunen bat erori ohi da, galiziar, madrildar eta andaluziar sorta errepresentagarri batekin batera. Hori bai, irabazleak, beti andaluzak.

Baina aurtengoan beldur naiz ez ote den desberdin izanen. Izan ere, ohiko lehiakide zoropitoen artean, Jazintoren zentzumena da nagusi. Erriberako doinu goxoz blai duen hitz-jarioa oilategian aditzen diren ergelkeriei gailentzen zaie. Etxean sartu bezain pronto txapelapean ibiltzen hasi zen, eta nafar petoaren antzera, Marcelino Camachok bogan ipini zuen artilezko jaka darama beti; badakizue, badaezpada, giroa hozten denerako. Horrekin batera Cintruenigoko armarrria duen zapi gorria eskegi zuen apal batean, lepoan eramateaz nazkatu zenean, eta harro erakutsi zien bere lagun berriei *made in Iruñea* den zahatoa. Hor dago Nafarroako izena lau haizeetara hedatzen. Txapela, zapia, zahatoa... Olentzero mendialdeko ikazkina ez balitz, eta Ebro bazterrean dabilen arrantzalea edota zainzuri biltzailea balitz, Jazinto izanen litzateke. Eta zergatik ez? Aupa Jazinto. Miguel Sanz nafar foru lehendakaria bada, zergatik ez da Jazinto Nafarroako Osaba Handia izanen? Euuuuuuuu!

gure aukerak

MUSIKA

- **Lizarra:** Ruper Ordorika, gaur, 20:00etan, musika eskolan.
- **Iruñea:** Ari taldea, gaur, 22:30ean, Reverendos aretoan.
- **Elizondo:** Ufestuek taldeak bere lehen diskoa aurkeztuko du, gaur, 23:00etan, Kasino ostatuan.
- **Zangoza:** Escarabajos taldea, gaur, 23:00etan, Dos Caballos tabernan.
- **Lekunberri:** Hirurko eta Zirikatu taldeak, gaur, gaueko hamabietan, gaztetxean.
- **Izura:** Ruper Ordorika, bihar, 21:00etan, Domintxenean.
- **Barindano:** Arcanda taldea, bihar, gaueko hamabietan, La Faustina ostatuan.
- **Zugarramurdi:** Ruper Ordorika, igandean, 18:00etan, Akelarrenean.

BERTSOLARIAK

- **Doneztebe:** Sustrai Colina, Amets Arzallus, Xabier Silveira, Xabier Legarreta, Estitxu Arozena, Jose Juan Zubieta *Etxabe*, Iñigo Olaetxea eta Bittor Elizagoien bertsolariak Nafarroako Bertsolari Txapelketako finala jokatu dute, igandean, 16:30ean, pilotalekuan. Aurkezlea Mikel Taberna izanen da. Xorroxin irratiak zuzenean aieratuko du finala.

HITZALDIA

- **Bera:** Gaur, *Bidaia bat liburu* etara hitzaldi sortaren barrenean, Pako Aristi idazleak *Venezuela, iraultza isilaren hitzak* kilburua aurkeztuko du, 19:30ean, liburutegian.
- **Iruñea:** Iñaki Petxarroman kazetariak *Nafarroa, iragana eta geroa* izenburuko hitzaldia es-

kainiko du, asteazkenean, 20:00etan, Zaldiko Maldikon. Gaizka Aranguren ibiliko da aurkezle lanetan.

- **Iruñea:** Asteazkenean, Jose Maria Satrustegi euskaltzaina udaberriko ohituren sustraiez solastatuko da, 20:00etan, Erraldioen Txokoa.

ANTZERKIA

- **Bera:** Bihar, Lesakako Mairu antzerki taldeak eta Tantirumairu dantza taldeak *Zugarra-murdiko sorginak* ikuskizuna eskainiko dute, 20:00etan, kultur etxean.
- **Iruñea:** Asteazkenean, Esther Uriak *Urak dakarrena... glu, glu, glu* bakarrikzeta taularatu du, 20:30ean, Nafarroako Antzerki Eskolan.

IKASTAROAK

- **Erronkari:** Erronkaria ikastaroa emanen du Koldo Artolak hurrengo hiru larunbatetan, 11:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 18:30era, Erronkaribarko Etxean.
- **Bera:** Astelehenetik ostegunera, *Etxean erabiltzen ditugun botikak* izeneko ikastaroa eskainiko dute Nafarroako Botikarien Elkarte kideek, 18:00etan, Jamotenean.

LEHIAKETAK

- **Iruñea:** Hilaren 19a arte aurkeztan ahal dira, Sorgintze tabernan (Gelbenzu, 35), Arrosadiako jaien kartel lehiaketarako lanak. Testua: «Arrosadiako festak 2002ko maia-

tzak 31, ekainak 1 eta 2 / Fiestas de arrosadia 31 de mayo, 1 y 2 de junio de 2002". Kartelak koloreetan eta, gehienez, DIN A-3 tamaina-koa.

ERAKUSKETAK

- **Barañain:** Harizti dantza taldearen XV. urteurrena dela eta, erakusketa izanen da kultur etxean, hilaren 25a arte, astelehenetik ostiralera 18:30etik 20:30era.

BESTELAKOAK

- **Uharte:** Patxi Buldain artistaren lanaren gaineko haurrentzako lantegia egingen dute bihar, euskaraz eta gaztelaniaz, 11:30ean, kultur etxean.

Asteko erakusketa

mendikea41

hiria

agurtzanevillate
marianesteban
robertobarbero
tomásastiz
marisamantxola
inakiotsoa
sandrasisofa
enriquebenito

• EGUNKARIA

Mendikea taldea

Non: Zizur Nagusiko Kultur Etxean.

Noiz arte: Apirilaren 21a arte.

Ordutegia: Lanegunetan, 19:00etatik 21:00etara, eta jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara.